# KIROL-ZERBITZUEN ERREGELAMENDU OROKORRA

# REGLAMENTO GENERAL DE LOS SERVICIOS DEPORTIVOS

**Kirolen Udal Zerbitzua**
**Servicio Municipal de Deportes**

KIROL-ZERBITZUEN ERREGELAMENDU OROKORRA
LEHEN TITULUA
XEDAPEN OROKORRAK

*1. artikulua.*
Lasarte-Oriako Udalaren Kiroletako Zerbitzuaren xede nagusia Lasarte-Oriako herritar orori kirola praktikan jartzeko aukera ematean datza. Horretarako, kirola garatu nahi du, kirol hitzaren esanahi zabalenarekin.

*2. artikulua.*
Erregelamendu honen helburua erabiltzaile edo bezeroen eskubideak eta obligazioak eta Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko kondizioak erregelatzea da.

*3. artikulua.*
Lasarte-Oriako Udalaren Kiroletako Zerbitzuak beretzat erreserbatzen du erregelamendu hau argitzeko, aldatzeko edo garatzeko xedapenak edo ebazpenak emateko eskubidea. Erregelamendu hau eta gainerako arau bereziak (ordutegiak, prezio publikoak, etab.) jendearen esku egongo dira, haren bulegoetan eta instalazio bakoitzaren harrerako lekuan.

*4. artikulua.*
Kirol-instalazioak erabiltzeko eskubidea dute pertsona, ikastetxe, kirol-entitate guztiek, baita beren helburuen artean kirolaren praktika sustatzea eta garatzea daukaten beste entitate guztiek ere, betiere instalazioetara sartzeko baldintzak betetzen badituzte.

Buruntzaldeko Kirol Zerbitzuen lankidetzako hitzarmena sinatua duten udalerrietako kirol-instalazioetako abonatuek eskubidea dute Lasarte-Oriako Udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko.

Abonatu horiei instalazio bakoitzaren erregelamenduan jasota dauden eskubide eta betebeharrak aplikatuko zaizkie.
Era berean eta aldi jakin batzuetan, instalazioak kirola ez den beste erabilera batzuetara destinatu ahalko dira, betiere bakoitzeko baldintza partikularrak betetzen badituzte.

*5. artikulua.*
Urtero, Udalbatzarrak onetsiko ditu eskainiko diren kirol-zerbitzuen prezio publikoak edo tasak. Behin prezio publikoak edo tasak onetsitakoan, horiek argitaratzeko eta ezagutarazteko hartu

REGLAMENTO GENERAL DE LOS SERVICIOS DEPORTIVOS
TÍTULO PRIMERO
DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*
El objetivo principal del Servicio Municipal de Deportes de Lasarte-Oria es posibilitar a toda la ciudadanía de Lasarte-Oria el acceso a la práctica deportiva, promoviendo para ello el desarrollo del deporte en su más amplia acepción.

*Artículo 2.*
El presente reglamento tiene por objeto el regular los derechos y obligaciones de las personas usuarias y las condiciones de uso de las instalaciones deportivas Municipales.

*Artículo 3.*
El Servicio Municipal de Deportes de Lasarte-Oria se reserva el derecho a dictar disposiciones o resoluciones para aclarar, modificar o desarrollar el presente reglamento. El mismo, así como las normativas específicas (horarios, precios públicos, etc.) estará a disposición del público, en sus oficinas y en la recepción de cada una de las instalaciones.

*Artículo 4.*
Tienen derecho al uso de las instalaciones deportivas, todas las personas, centros de enseñanza, entidades deportivas y otras entidades que contemplen entre sus objetivos la promoción y el desarrollo de la práctica deportiva, y que cumplan las condiciones de acceso a las mismas.
Las personas abonadas a las instalaciones deportivas de los Municipios firmantes del convenio de colaboración de los Servicios Deportivos de Buruntzaldea tienen derecho a utilizar las instalaciones deportivas Municipales de Lasarte-Oria.
A esas personas abonadas se les aplicarán los derechos y deberes recogidos en los reglamentos de cada instalación.
De igual forma y con carácter puntual, las instalaciones podrán destinarse a usos no deportivos que cumplan los requisitos particulares de los mismos.

*Artículo 5.*
Anualmente el Pleno Municipal aprobará los precios públicos o tasas de los Servicios Deportivos ofertados. Una vez aprobados los precios públicos o tasas el Servicio Municipal de

behar diren neurriak hartuko ditu Udalaren Kirol-Zerbitzuak.

BIGARREN TITULUA / ERABILTZAILEAK

*6. artikulua.*

Erabiltzaile mota hauek bereizten dira:

1. Abonatuak.
2. Abonatu gabeak.
3. Kirol-entitateak.
4. Ikastetxeak.

1. KAPITULUA: ABONATUAK

*7. artikulua.*

1. Edozein abonu motaren onuraduna den pertsona oro izango da abonatua.
2. Abonuak, oro har, familiakoak edo norbanakoak izan daitezke. Abonatua izateko, eskatu egin behar da eta dagokion prezio publikoa edo tasa ordaindu. Hala ere, horrek ez ditu baldintzatuko Udaleko organo eskudunak onesten dituen aplikatzeko hobariak.
3. Familiako abonuak onuradun hauek biltzen ditu: Ezkontideak, aitak edo amak, 18 urtez beherako seme-alabak eta diru-sarrerarik sortzen ez duten 18 urtetik 25 urtera bitartekoak (azken horien egoera justifikatzeko, enplegua eskatzeko txartelaren kopia edota ikasketen matrikularen justifikagiria aurkeztuko da). Etxebizitza berean erregistratutako eta erroldatutako izatezko bikoteek familiako abonua egin ahalko dute. Familiako kide bakoitzak txartel pertsonala izango du.
4. Abonatu-txartela pertsonala eta transferiezina izango da.
5. Abonu-txartela galduz gero, berehala jakinarazi beharko zaio Udalaren Kirol-Zerbitzuari. Hark txartel berria egingo du, aldez aurretik horretarako ezarritako prezio publikoa edo tasa ordainduta.
6. Abonatu izateari utzi nahi dionak jadaneko urteko abenduaren 10a baino lehen adierazi beharko du Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoetan. Horrela egiten ez badu, hurrengo urtean ere abonatu izaten jarraitu nahi duela ulertuko da.
7. Abonuaren prezio publikoaren edo tasaren ordainketa banketxeren batean domiziliatuz edo banku-txartelarekin Udalaren Kirol Zerbitzuaren bulegoetako kutxan pagatuz egin daiteke, eta orobat Udalaren Kirol Zerbitzuaren kontuan dirua sartuz (Udalaren Kirol Zerbitzuak horretarako adierazitako edozein banketxetan).

Deportes adoptará las medidas oportunas para la publicación e información de los mismos.

TÍTULO SEGUNDO/ DE LAS PERSONAS USUARIAS

*Artículo 6.*

Se distinguen los siguientes tipos de usuarios/as:

1. Personas abonadas.
2. No abonadas.
3. Entidades deportivas.
4. Centros escolares.

CAPÍTULO 1: DE LAS PERSONAS ABONADAS

*Artículo 7.*

1. Se entiende por persona abonada toda persona que sea beneficiaria de alguna de las diferentes clases de abono.
2. Con carácter general los abonos podrán ser familiares o individuales. Para ser abonado hay que solicitarlo y abonar el precio público o tasa correspondiente, sin perjuicio de las bonificaciones cuya aplicación pueda aprobar el órgano competente del Ayuntamiento.
3. El abono familiar incluye a los siguientes beneficiarios: Las y los cónyuges, hijas e hijos menores de 18 años y los mayores de 18 años, hasta los 25 años, que no generan ingresos (esta situación se justificará presentando copia de la tarjeta de demanda de empleo y/o justificante de la matrícula de los estudios). Las parejas de hecho registradas y empadronadas en una misma vivienda podrán realizar un abono familiar. Cada miembro de la familia tendrá un carnet personal.
4. El carnet de persona abonada será personal e intransferible.
5. La pérdida del carnet de persona abonada deberá ser comunicada de inmediato al Servicio Municipal de Deportes, que facilitará un nuevo carnet previo pago del precio público o tasa establecido.
6. La persona abonada que desee causar baja de esta condición deberá comunicarlo en las oficinas del Servicio Municipal de Deportes antes del 10 de diciembre del año en curso. En el caso de que así no fuera se entenderá que quiere continuar el abono para el año siguiente.
7. El pago del precio público o tasa del abono podrá realizarse mediante domiciliación bancaria, pago en caja de oficinas del Servicio Municipal de Deportes con tarjeta bancaria e igualmente mediante ingreso en la cuenta del Servicio Municipal de Deportes en cualquiera de las entidades bancarias que el Servicio Municipal de Deportes facilite.

8. Abonuaren kuotari dagozkion erreziboak itzuliz gero edo abonuak ezarritako epean ordaintzen ez badira, abonaturi automatikoki emango zaio baja.

8. La devolución de los recibos de cuotas de abonos o abonos que no fueran pagados en el plazo establecido causarán la baja automática de la persona abonada.

## 2. KAPITULUA: ABONATU GABEAK

## CAPÍTULO 2: DE LAS PERSONAS NO ABONADAS

*8. artikulua.*

1. Abonatuak ez diren erabiltzaileek kirol-instalazioetara eta haietako zerbitzuetara sartzeko aukera izango dute, erabili nahi duten zerbitzurako ezarritako prezio publikoa edo tasa saio bakoitza hasi aurretik ordainduta.

2. Instalazioetara sartzeko prezio publikoak edo tasak ezberdinak izango dira 18 urtetik beherakoentzat eta gorakoentzat.

*Artículo 8.*

1. Las personas usuarias individuales no abonados/as podrán acceder a las instalaciones deportivas y a sus servicios previo pago del precio público o tasa de cada sesión para el servicio que deseen utilizar.

2. Los precios públicos o tasas de acceso a las instalaciones serán diferentes para menores y mayores de 18 años.

## 3. KAPITULUA: KIROL-ENTITATEAK.

## CAPÍTULO 3: DE LAS ENTIDADES DEPORTIVAS.

*9. artikulua.*

1. Legez eratutako kirol-entitateak eta aldi berean Euskal Herriko Kirol Entitateen Erregistroan edota Udalaren Kirol Zerbitzuaren kirol-entitateen zerrendan ageri direnak izango dira Udalaren Kirol Zerbitzuaren aurrean lehiaketazko kirolaren baliozko ordezkari bakartzat hartuko direnak.

2. Udalaren Kirol Zerbitzuko instalazioak erabiliko dituzten kirol-entitateetako kirolariek zerbitzuko abonatuak beharko dute izan, horretarako ezarritako kondizioen arabera.

3. Aurreko baldintza horiek betetzen dituzten kirol-entitateek erabili ahalko dituzte Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioak beren jarduerak egiteko, betiere Udalaren Kirol Zerbitzuak ezarritako baldintzak betetzen badira.

4. Jardueretako orduen banaketa Udalaren Kirol Zerbitzuaren zuzendaritzarekin egingo den bilera baten bidez edo hitzarmen bidez erabakiko da.

5. Udalaren Kirol Zerbitzuak kirol-entitateen jarduerak eten ahalko ditu, arrazoi justifikaturen bat badago. Kasu horretan, aldez aurretik jakinaraziko die.

6. Lehiaketa ofizialetarako, kirol-entitateek idatziz aurkeztu beharko dute egingo dituzten jardueren egutegia, behar adinako denborarekin.

7. Entrenamenduetarako eta lehiaketa ofizialetarako ordutegiak kirol-instalazioek berek dauzkaten jarduera eta ordutegietara moldatu beharko dira. Ordu horiek denboraldi baterako iraupena izango dute eta ez dute antzinatasuneko

*Artículo 9.*

1. Las entidades deportivas legalmente constituidas y que estén registradas en el Registro de Entidades Deportivas del País Vasco y/o en el listado de Entidades Deportivas del Servicio Municipal de Deportes, serán consideradas las únicas representante del deporte de competición ante el Servicio Municipal de Deportes.

2. Las personas deportistas de las entidades deportivas que utilicen las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes deberán ser abonadas al mismo en las condiciones que se establezcan.

3. Las entidades deportivas que cumplan los requisitos anteriores podrán utilizar las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes para desarrollar sus actividades, siempre que se cumplan las condiciones establecidas por el Servicio Municipal de Deportes.

4. La distribución de los horarios de actividades se realizará bien mediante convenio o mediante una reunión con la Dirección del Servicio Municipal de Deportes.

5. El Servicio Municipal de Deportes podrá suspender, por causas justificadas, las actividades de las entidades deportivas previa comunicación a las mismas.

6. Para las competiciones oficiales las entidades deportivas deberán comunicar por escrito, con una antelación suficiente, las actividades a desarrollar.

7. Los horarios de entrenamientos y competiciones oficiales deberán ajustarse a los horarios y actividades propios de las instalaciones deportivas. Estas horas son para una temporada y no darán derecho de antigüedad.

eskubiderik sortuko.

8. Hasteko orduak ez dira hamabost minutu baino gehiago atzeratu beharko, betiere kausa instalazioarena ez bada. Atzerapena gertatuz gero, posible da ebentua suspenditzea, baldin eta gertatutako atzerapenak kalte larria badakarkio gainerako programazioari. Atzerapen horiek sortutako gastuak entitate antolatzailearen kontura joango dira.

9. Kirol-entitateek antolatutako kirol-ekintzen erantzukizun zibila berena izango da. Horretarako, dagokion erantzukizun zibileko asegurua kontratatu beharko dute, gutxienez 300.000 euroko estaldura duena, eta indarrean dagoela eta nahikoa dela justifikatu beharko dute.

10. Kirol-entitateek udalaren kirol-instalazioetan publizitatea jarri nahi badute, horretarako baimena eskatu behar dute. Baimena jasoz gero, kontrako erabaki berezirik izan ezean, ondoko irizpide hauek bete beharko dituzte:

a) Joko-esparrua eta haren ingurua dira publizitate jartzen uzten den leku bakarra, eta lehiaketa ofizialetarako bakarrik jar daiteke.
b) Klubak, beren publizitatea ipintzeko, horretarako dituzten guneetara sartu ahalko dira, eta lehiaketa ofizialerako erreserba egin zutenean adostutako denboran bakarrik ipini ahalko dute.
c) Publizitatea ipintzeko eta kentzeko lana entitatearen kontura izango da, eta lan hori jokalekua, hormak edo pintura hondatu gabe egingo du.
d) Publizitateak itxura onen eta estetikaren arau gutxieneko batzuk bete beharko ditu. Bestalde, alkoholaren eta tabakoaren gaineko arauak ere bete beharko dituzte, bai eta ikuskizun publikoekin lotutako beste edozein arau ere.

11. Kirol-entitate batekoa den edozein taldek ezingo du instalazioa erabili baldin eta taldeaz arduratuko den pertsona heldurik bertan ez bada.

## 4. KAPITULUA: IKASTETXEAK

*10. artikulua.*

1. Lasarte-Oriako ikastetxeek, instalazioen ordutegiaren barruan sartzen zaizkien eskola-orduetan, prezio publikorik edo tasarik ordaindu gabe eta ezartzen diren kondizioetan erabili ahalko dituzte Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioak.

2. Ikasle-taldeek, instalazioetara sartuko badira

8. Los horarios de comienzo no deberán retrasarse más de quince minutos por causas ajenas a la instalación. En caso de retraso podría suspenderse el evento si el retraso originado supusiera grave prejuicio al resto de la programación. Los gastos originados por estos retrasos serán por cuenta de la entidad organizadora.

9. La responsabilidad civil de los actos deportivos organizados por las entidades deportivas recaerá sobre los mismos. A este efecto deberán contratar la póliza de responsabilidad civil correspondiente, con una cobertura mínima de 300.000 euros y justificar su vigencia y suficiencia.

10. Las Entidades Deportivas que deseen colocar publicidad en las instalaciones deportivas municipales deberán solicitar la autorización correspondiente. En caso de obtener la autorización, salvo acuerdo específico contrario, deberán cumplir los siguientes criterios:

a) El recinto de juego y su contorno es el único lugar en donde se permite la colocación de publicidad y solo para competiciones oficiales.
b) Los espacios a los que pueden acceder los clubes para colocar su publicidad, estarán a su disposición por el tiempo por el que se efectuó la reserva para la competición oficial.
c) La colocación y retirada de los elementos publicitarios correrán a cargo de la entidad, que realizará esta operación sin deterioro del terreno de juego, paredes o pinturas.
d) La publicidad deberá atenerse a unas mínimas normas de decoro y estética. Por otra parte cumplirán la normativa sobre alcohol y tabaco, y cualquiera otra relacionada con los espectáculos públicos.

11. Ningún grupo perteneciente a una entidad deportiva podrá utilizar la instalación sin la presencia de una persona adulta responsable del mismo.

## CAPÍTULO 4: DE LOS CENTROS ESCOLARES

*Artículo 10.*

1. Los Centros Escolares de Lasarte-Oria, en su horario lectivo comprendido dentro del horario de las instalaciones, podrán utilizar las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes sin abono de precio público o tasa y en las condiciones que se determinen.

2. Los grupos de escolares accederán y utilizarán

eta haiek erabiliko badituzte, ikastetxeak izendatutako arduradun batek lagundurik joan beharko dute.
3. Eskola-kiroleko jarduerek udalaren kirol-instalazioak erabiltzeko aukera izango dute, horretarako zehazten diren kondizioetan.
4. Eskola-umeen lehiaketak direnean, antolatzaileek idatziz aurkeztu beharko dute egingo dituzten jardueren egutegia, behar adinako denborarekin.

las instalaciones acompañados por una persona responsable designada por el Centro.

3. Las actividades de deporte escolar tendrán acceso a las instalaciones deportivas municipales en las condiciones que se determinen.
4. Para las competiciones de escolares quienes organizan deberán comunicar por escrito, con una antelación suficiente, las actividades a desarrollar.

## HIRUGARREN TITULUA
## KIROL-JARDUERAK
### 1. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

*11. artikulua.*
1. Udalaren Kirol Zerbitzuak, bere ahalen arabera, populazioaren segmentu guztietan kirol-praktika garatzera bideraturiko kirol-jarduerak antolatuko ditu urtero.

2. Aipatutako kirol-jarduera horien helburu nagusia erabiltzaileen ahalik eta satisfaziorik handiena lortzea izango da.
3. Kirol-jardueren programazioa ahalik eta modu efikazenean hedatuko du Udalaren Kirol Zerbitzuak.
4. Kirol-jarduerak prezio publiko edo tasei lotuak egongo dira. Ikastaroetako partaideek pase bat jasoko dute, izaera hori egiaztatuko diena.

5. Kirol-jarduerek, garatu ahal izateko, inskribatuen gutxieneko eta gehieneko kopurua izango dute, eta, ezarritako kopuru minimora heltzen ez bada, jarduera ez da emango.
6. Edozein mementotan, kirol-jarduera batean plazarik geratzen bada, izena emateko aukera izango da, baina inskripzio hori jarduera bukatu artekotzat joko da.
7. Jarduera baten prezio publikoa edo tasa ordaintzeke uzteak bertan automatikoki baja ematea ekarriko du.
8. Udalaren Kirol Zerbitzuak edozein erabiltzaileri eskatu ahalko dio, kirol-jarduera batean izena eman baino lehen, kirola praktikatzeko gaitasuna duela egiaztatuko duen azterketa medikoa egiteko.
9. Udalaren Kirol Zerbitzuaren zuzendaritzak, arrazoi justifikaturen bat badago, kirol-jarduera bat aldi baterako edo betiko eten dezake. Horrelakorik gertatuz gero, itzuli egingo du ordaindutako kopuruetatik emango ez den aldiari dagokion zenbatekoa.

## TÍTULO TERCERO
## DE LAS ACTIVIDADES DEPORTIVAS
### CAPÍTULO 1: DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 11.*
1. El Servicio Municipal de Deportes, en la medida de sus posibilidades, organizará anualmente actividades deportivas orientadas al desarrollo de la práctica deportiva en todos los segmentos de la población.
2. Dichas actividades deportivas tendrán como objetivo primordial conseguir la mayor satisfacción de las personas usuarias.
3. La programación de las actividades deportivas será difundida de forma eficiente por el Servicio Municipal de Deportes.
4. Las actividades deportivas estarán sujetas a precios públicos o tasas. Las y los cursillistas recibirán un pase que les acredite de dicha condición.
5. Las actividades deportivas tendrán un número máximo y mínimo de personas inscritas para su desarrollo y en caso de que no se alcance el mínimo establecido la actividad no se impartirá.
6. En cualquier momento, si hubiera plazas, se podrá inscribir en una actividad deportiva, entendiéndose esta inscripción hecha hasta la finalización de la actividad.
7. El impago del precio público o tasa de una actividad supondrá la baja automática en la misma.
8. El Servicio Municipal de Deportes podrá exigir a cualquier persona usuaria , antes de su inscripción en una actividad deportiva, un reconocimiento médico que acredite su aptitud para la práctica deportiva.
9. La dirección del Servicio Municipal de Deportes, por causas justificadas, podrá suspender temporalmente o definitivamente una actividad deportiva, en cuyo caso será reintegrado el importe de las cantidades abonadas correspondientes a este período.

## LAUGARREN TITULUA INSTALAZIOETARA SARTZEKO ETA INSTALAZIOAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK

*12. artikulua.*

1. Instalazioetara sartzeko, aldez aurretik, abonatu-txartela edo txartel hori baduela dioen egiaztagiria aurkeztu behar da, sartzeko dagoen prezio publikoa edo tasa ordaindu behar da edo ikastaroren bateko partaide-txartela erakutsi behar da.
2. Instalazioen kontrolerako dagoen edozein enplegatuk eska dezake agiri horiek erakusteko.
3. Debekatua dago baloiekin, pilotekin edota beste edozer gauzarekin jolastea aldageletan, korridoreetan, harmailetan eta kirola egiteko ez den beste edozein lekutan. Erabilia izateko ordutegia finkatua duen kirol-eremua utzi egin beharko da behin ordua bete denean, horretarako baimen espresik izan ezean. Erabileraren amaiera instalazioaren itxierarekin batera gertatzen denean, ixteko ordua baino gutxienez 10 minutu lehenago bukatuko da saioa.
4. Instalazioetan lehiaketak eta ikuskizunak egiten diren bitartean haietara joandako publikoak egin dezakeenaren erantzukizuna entitate antolatzaileen gain geratuko da.
5. Doloagatik, arduragabekeriagatik edo erabilera txarragatik instalazioetan gertatzen den edozein narriadura edo haustura instalazioak erabiltzeko erreserba egin duen pertsonaren edo entitatearen kontura joango da. Kalte horiek lehiaketa ofizialetan gertatzen badira, dagozkien federazioari eta klubari jakinaraziko zaizkie, eta entitate kontratatzailea izango da egindako kalteen erantzulea.
6. Udalaren kirol-instalazioak erabiltzean, beti jantzi beharko dira kirola egiteko arropa eta oinetako espezifikoak (ez kalekoak), haietako bakoitzaren espezifikotasuna errespetatuz. Kirolerako ez den arropa jantzita ibiltzeko, baimen berezia beharko da.
7. Udalaren kirol-instalazioen erabiltzaileek aldageletako armairuetan gordeko dituzte beren gauzak kirola egiten ari diren bitartean. Behin kirol-jarduera amaitutakoan, armairuak libre geratu beharko du.
8. Udalaren kirol-instalazioen barruan debekatua dago erretzea, jatea edo beirazko gauzak sartzea, horretarako seinalatuak dauden zonetan izan ezean. Debekatua dago instalazioetan animaliak sartzea, aldageletatik kanpo janztea edo eranztea, sexu bateko pertsonak beste sexukoentzat

## TÍTULO CUARTO SOBRE NORMAS GENERALES DE ACCESO Y UTILIZACIÓN DE LAS INSTALACIONES

*Artículo 12.*

1. El acceso a las instalaciones se hará previa presentación del carnet de la persona abonada o de documento acreditativo de estar en posesión del mismo, previo pago del precio público o tasa de la entrada o previa presentación del pase de cursillista.
2. El personal de control de las instalaciones podrá solicitar la presentación de dichos documentos.
3. No está permitido jugar con balones, pelotas y otros objetos, en vestuarios, pasillos, graderíos ni todas aquellas zonas que no se consideren espacios deportivos. La utilización de un espacio deportivo que tenga un horario fijado para su uso debe abandonarse una vez se haya cumplido, salvo autorización expresa. Cuando el final de la utilización coincida con el cierre de la instalación la sesión finalizará al menos 10 minutos antes de la hora de cierre.
4. La responsabilidad de los actos que el público realice en las instalaciones durante la celebración de competiciones y espectáculos recaerá sobre las entidades organizadoras.
5. Cualquier deterioro o rotura en las instalaciones que se origine por dolo, negligencia o mal uso, serán por cuenta de la persona o entidad que efectuó la reserva de la utilización. En el caso de competiciones oficiales estos daños serán comunicados a la Federación y Club correspondientes, siendo la entidad contratante la responsable de los desperfectos que se originen.
6. La utilización de las instalaciones deportivas municipales se hará siempre con atuendo deportivo y calzado específico (no de calle) y respetando la especificidad de cada una de ellas. Para utilizar atuendo no deportivo se requerirá autorización expresa.
7. Las personas usuarias de las instalaciones deportivas municipales utilizarán las taquillas para guardar sus pertenencias mientras realizan la práctica deportiva. Una vez finalizada la práctica deportiva, la taquilla deberá quedar libre.
8. No está permitido fumar, comer ni introducir objetos de cristal en el interior de las instalaciones deportivas municipales, excepto en las zonas señaladas al efecto. Está prohibido introducir animales en las instalaciones, vestirse o desvestirse fuera de los vestuarios, la entrada de

esklusiboki erreserbatutako guneetara sartzea (6 urtetik aurrera) eta osasuneko, gizalegeko, higieneko eta garbitasuneko arauen kontra eta intimitatearen kontra doan beste edozein jokabide.

BOSGARREN TITULUA
ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA OBLIGAZIOAK

1. KAPITULUA: ESKUBIDEAK

*13. artikulua.*
Abonatu guztiek, aldez aurretik abonatu-txartela aurkeztuta, ondoko eskubide hauek izango dituzte:
1. Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioetara libreki sartzea, kasu bakoitzean zehazten diren mugekin eta orduetan.

2. Kuota murriztua edukitzea Udalaren Kirol Zerbitzuak antolatzen dituen kirol-jardueretan inskribatzean eta matrikulatzean.

*14. artikulua.*
Abonatuak ez diren guztiek, ezarritako prezio publikoa edo tasa ordainduz gero, Udalaren Kirol Zerbitzuaren instalazioak erabiltzeko eskubidea izango dute, betiere publikoarentzat zabalik dauden orduen barruan.

*15. artikulua.*
Erabiltzaile guztiek ondoko eskubide hauek dituzte:
1. Lasarte-Oriako Udalaren Kirol Zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzu guztiak erabiltzea, bakoitzerako dagoen araudiaren arabera.

2. Edozein unetan instalazioetako zerbitzuetako arduradunaren edo edozein enplegaturen izena eskatzea, egoki deritzen erreklamazioak edo iradokizunak egite aldera.

3. Udalaren Kirol Zerbitzuko enplegatuen aldetik tratu egokia jasotzea.
4. Udalaren Kirol Zerbitzuari haren instalazioen edo zerbitzuen gaineko edozein zalantza, iradokizun edo erreklamazio planteatzea.
5. Horrela eskatzen badu, honako erregelamendu honen ale bat jasotzea.
6. Udalaren Kirol Zerbitzuari emandako datu pertsonalak babestea, indarrean dagoen araudian ezartzen duenaren arabera.
7. Indarrean dagoen legedian jasotako beste edozein eskubide.

personas de un sexo a espacios reservados exclusivamente a otro sexo (a partir de los 6 años) y cualquier otra conducta que vaya en contra de las normas de salud, urbanidad, higiene, limpieza y en contra de la intimidad.

TÍTULO QUINTO
DE LOS DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

CAPÍTULO 1: DE LOS DERECHOS

*Artículo 13.*
Todas las personas abonadas tendrán, previa presentación del carnet, los siguientes derechos:

1. Tener libre acceso a las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes, con las limitaciones y en los horarios que en cada caso se señalen.
2. Disfrutar de una cuota reducida en la inscripción y matriculación en las actividades deportivas que organice el Servicio Municipal de Deportes.

*Artículo 14.*
Todas las personas no abonadas tendrán derecho, previo pago del precio público o tasa establecido a la utilización de las instalaciones del Servicio Municipal de Deportes dentro de los horarios que las mismas estén abiertas al público.

*Artículo 15.*
Todas las personas usuarias tienen derecho a:

1. La utilización, de acuerdo a cada normativa particular, de todos los servicios que oferte el Servicio de Deportes del Ayuntamiento de Lasarte-Oria
2. Solicitar en cualquier momento la identificación de cualquier persona empleada o responsable de los servicios de las instalaciones, a los efectos de realizar las reclamaciones o sugerencias que estime oportuno.
3. Al trato correcto por parte del personal del Servicio Municipal de Deportes.
4. A plantear ante el Servicio Municipal de Deportes cualquier duda, sugerencia o reclamación sobre las instalaciones o servicios del mismo.
5. A obtener, si así lo solicita, un ejemplar del presente reglamento.
6. La protección de los datos personales facilitados al Servicio Municipal de Deportes, conforme a lo previsto en la normativa vigente.
7. Cualesquiera otros derechos que vengan recogidos en la legislación vigente.

## 2. KAPITULUA: BETEBEHARRAK

*16. artikulua.*
Abonatu eta erabiltzaile guztiek, oro har, honako betebehar hauek dituzte:
1. Instalazioak eta zerbitzuak erregelamendu honetako arauen arabera eta berau garatzen duten xedapenen arabera erabiltzea eta instalazioetako pertsonalak haien erabileraz esandakoari jaramon egitea. Horrela eskatuz gero, instalazioetara sartzeko eta horiek erabiltzeko akreditatzen duen dokumentazioa aurkeztu beharko dute.
2. Instalazioak eta bertako ekipamendua ondo zaintzea. Arduragabekeriagatik edo doloagatik gertatutako edozein kalteren erantzukizuna arduragabeki edo doloz jokatu duenarena izango da.
3. Beste erabiltzaileen eskubideak oro har errespetatzea.
4. Ezarritako tasak edo prezio publikoak beren garaian ordaintzea.
5. Udalaren Kirol Zerbitzuko langileak jakinaren gainean jartzea funtzionamenduan okerren bat badago, zerbait apurtu edo falta bada edo erregelamendu honetan xedatutakoa bete ez bada.
6. Instalazioetan gizalegez portatzea eta bertako enplegatuei lana erraztea.
7. Indarrean dauden legeetan jasotako eta erregelamendu honetan ezarritako beste edozein betebehar.

# SEIGARREN TITULUA
# KIROLERAKO EKIPAMENDUAK ERABILTZEKO ARAUAK

## 1. KAPITULUA: IGERILEKU ESTALIAK

*17. artikulua.*
Instalazio hau erabiltzearen xedea erabiltzaileek ariketa fisikoa egitea eta atsegin hartzea da, baia halaber igeri egiten ikastea edo dakitena hobetzea. Era berean, elkarteek eta kirol-klubek ere erabiliko dute, beren jarduera espezifikoak garatzeko.

Igerian behar bezala ez dakienari edo kontuz ibiltzen ez denari igerilekuan istripuren bat gertatzen bazaio, ez da Udalaren Kirol Zerbitzuaren erantzukizuna izango. Horregatik, debekatua geratzen da 8 urte baino gutxiagoko haurrak sartzea (Udalaren Kirol Zerbitzuak berak antolatutako programa edo ikastaroetako partaideak izan ezik), pertsona heldu batek lagundurik ez badoaz. 19:00etatik aurrera, 16 urte

## CAPÍTULO 2: DE LAS OBLIGACIONES

*Artículo 16.*
Constituyen obligaciones de las personas abonadas y usuarias en general las siguientes:
1. Utilizar las instalaciones y servicios conforme a las normas de este Reglamento y las disposiciones que lo desarrollen, y a seguir las indicaciones de uso del personal de las mismas, presentando, si así lo requieren, la documentación acreditativa para la entrada y el uso de las instalaciones.

2. Cuidar las instalaciones y su equipamiento. La responsabilidad de todo daño producido por negligencia o dolo será de quien haya actuado de manera irresponsable o dolosa.

3. Respetar los derechos de las demás personas usuarias en su conjunto.
4. Satisfacer en su momento las tasas o precios públicos establecidos.
5. Comunicar al personal del Servicio Municipal de Deportes las anomalías de funcionamiento, roturas, deficiencias o incumplimiento de lo dispuesto en este Reglamento.
6. Comportarse correctamente en las instalaciones favoreciendo la labor del personal empleado.
7. Cualesquiera otras obligaciones que vengan reconocidas en la legislación vigente y por lo dispuesto en este reglamento.

# TÍTULO SEXTO
# DE LAS NORMAS DE UTILIZACIÓN DE LOS EQUIPAMIENTOS DEPORTIVOS

## CAPÍTULO 1: DE LAS PISCINAS CUBIERTAS

*Artículo 17.*
La utilización de esta instalación está destinada a la actividad física y el esparcimiento de las personas usuarias, así como al aprendizaje y el perfeccionamiento de la natación por las mismas. De igual modo será utilizada por las asociaciones y clubes deportivos para el desarrollo de sus actividades específicas.
El Servicio Municipal de Deportes no responderá de los accidentes que puedan sobrevenir a las personas usuarias que utilicen la piscina sin conocimiento de la natación o sin guardar la debida prudencia. A este efecto queda prohibida la entrada de menores de 8 años (a excepción de participantes en programas o cursos organizados por el Servicio Municipal de Deportes) si no van en compañía de una persona adulta. A partir de

baino gutxiagokoek debekatua dute sartzea, pertsona heldu batek lagundurik ez badoaz.

Udalaren Kirol Zerbitzuak programatuko du igerilekuko kaleak nola banatzen diren, eta ondoko ikusteko moduan seinalatuko ditu, betiere han garatzen diren jarduerak errespetatuz: bainu librea, ikastaroak, kluben jarduerak eta programak eta egokitzat jotzen den beste edozein jarduera.

Eusko Jaurlaritzako Osasun eta Kontsumoko Sailak indarrean daukan araudiak dioena betetze aldera, erabiltzeko erregelamendu hau ezartzen da:

1. Igerilekua zabalik dagoen bitartean, beti egongo da behar bezalako titulazioa duen sorosle bat. Soroslea bera da igerilekuko arduraduna; horregatik, obeditu egin behar dira pertsona horren erabakiak.

2. Igeri egiteko ontzietan, gehien jota, 128 lagun ibili ahalko dira aldi berean, eta instalazio osoan 375 lagun.

3. Instalazio honetara sartzeko, nahitaezkoa da aurretik dutxatzea.

4. Nahitaez jantzi beharrekoak dira igeriketako txanoa, igeriketako jantzia eta txankletak edo uretako zapatilak (horretarako espresuki eramanak).

5. Guztiz debekatuta dago bainatzeko eremura kaleko arroparekin edo oinetakoekin sartzea.

6. Erabat debekatuta dago instalazio honetan erretzea, edatea edo jatea.

7. Erabat debekatuta dute bainatzeko eremura sartzea azaleko gaixotasun kutsakorren bat duten pertsonek.

8. Instalazio honetan, errespetatu egin beharko dira gainerako erabiltzaileak, eta, bereziki, ezingo da: igerilekuko zabaltzan korrika ibiltzea, jolas arriskutsuetan ibiltzea, kortxo-ilarei heltzea edo haietan esertzea, abiadako plataformetatik salto egitea eta igerilekuan zabaletara igeri egitea.

9. Kirolean aritzeko materialen bat behar duten pertsonek sorosleari eskatu beharko diote. Baimena jasoz gero, behin erabiltzen amaitutakoan, materiala sorosleari itzuliko zaio.

10. Igerian egiteko, ezin da hegatsik erabili, ez eta ondoko igerilariei min egin diezaiekeen elementurik ere. Salbuespen dira kirol-entrenamenduak, ikastaroak eta sorosleak beste erabiltzaileen jardun normala asaldatzen ez duela deritzonean.

las 19:00 horas queda prohibida la entrada de menores de 16 años si no van en compañía de una persona adulta.

El Servicio Municipal de Deportes programará y colocará en lugar visible la distribución de las calles de la piscina, respetando las actividades que en la misma se desarrollan: baño libre, cursos y actividades y programas de los clubes y otras actividades que se consideren adecuadas.

En cumplimiento de lo dispuesto en la normativa vigente del Departamento de Sanidad y Consumo del Gobierno Vasco se establece el siguiente reglamento de uso:

1. Durante las horas de apertura de la piscina habrá presencia en la misma de un o una socorrista con la titulación debida. Por socorrista se entiende la persona responsable de la piscina, por lo que hay que obedecer las decisiones de dicha persona.

2. El aforo máximo simultáneo de los vasos se establece en 128 personas y el de la instalación en 375 personas.

3. Para acceder a esta instalación es obligatorio ducharse previamente.

4. Es obligatorio el gorro de baño, el bañador y el uso de chancletas o zapatillas de baño (llevadas expresamente para ello).

5. Está totalmente prohibido acceder a la zona de baño con ropa o calzado de calle.

6. Está totalmente prohibido fumar, beber o comer en esta instalación.

7. Está totalmente prohibido el acceso a la zona de baño a personas que padezcan alguna enfermedad cutánea transmisible.

